

LANBIDE-GARAPENEN OHIKO DEIALDIA

C ETA D TALDEETARAKO JARRAIBIDEEN ESKULIBURUA
AUTOEBALUAZIO-FASEA

Osakidetza

1. BERTSIOA

Edukia

OSAKIDETZAKO LANBIDE-GARAPENENKO OHIKO DEIALDIA (2081/2025 EBAZPENA) .2	
1. EBALUAZIO-PROZEDURA.....	3
2. <i>CURRICULUM VITAE</i> APLIKAZIOKO CURRICULUM- MEREZIMENDUAK.....	4
3. NOLA EGIN AUTOEBALUAZIOA	6
JARDUERA ETA LANEAN ARITZEA FAKTOREARI egindako ekarpenak	8
GAITASUNA ETA LANBIDE-JAKINTZA FAKTOREARI egindako ekarpenak.....	10
ERAKUNDEAREKIKO INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA FAKTOREARI egindako ekarpenak.....	11

OSAKIDETZAKO LANBIDE- GARAPENEN OHIKO DEIALDIA (2081/2025 EBAZPENA)

AUTOEBALUAZIO-FASERAKO JARRAIBIDEAK

Onartutako pertsonak **Autoebaluazio Fasean** sartzen dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren 6. artikuluan jasotzen den bezala. Autoebaluazioa, alde batetik, faktoreak ebaluatzeko informazio garrantzitsua ematean datza, **Autoebaluazio Fitxaren** bidez, eta, bestetik, autoebaluazioan zehar, curriculum-merezimenduak alegatzean.

Autoebaluazio-fasea borondatezkoa da, ez derrigorrezkoa. Onartutako pertsonen informazioa ematen dute, eta beren lanbide-taldearen arabera aplikatu behar zaizkien faktore ebaluagarrien autoebaluazioa egiten da. Gainera, fase horretan, onartutako pertsonen beren curriculum-merezimenduen egoera zein den egiazta dezakete, eta oraindik Osakidetza Curriculum Vitaean sartu gabe daudenak erregistratu ahal izango dituzte, baliozkotzeko dokumentazio egokia aurkeztuta. Informazio hori guztia kontuan hartuko da Ebaluazio Prozedurarako, zeina deialdiaren hurrengo fasea izango baita.

1. EBALUAZIO-PROZEDURA

Ohiko deialdian ebalua daitezkeen faktoreak abenduaren 19ko **2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan** zehazten dira. Irailaren 22ko 395/2005 Dekretuak, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuak eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuak ezarritako esparruaren arabera, kasu bakoitzean aplika daitezkeen faktore ebaluagarriak Osakidetzan garapen-maila aitortzeko eskatzen den lanbide-taldearen arabekoak dira.

Honako hauek dira ebaluatu daitezkeen faktoreak:

- **jarduera asistentziala** (A1 eta B1 lanbide-taldeetan), **jarduera eta lanean aritzea** (A2, B2, C eta D lanbide-taldeetan) edo **jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala** (E lanbide-taldeetan);
- **lanbide-jakintza** (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako) edo **gaitasuna eta lanbide-jakintza** (C eta D lanbide-taldeetarako);
- **prestakuntza** (lanbide-talde guztientzat);
- **irakaskuntza eta jakintzaren hedapena** (talde guztietarako, eta C, D eta E taldeen kasuan, **berrikuntza** ere sartzen da);
- **ikerikuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk** (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako soilik), eta
- **erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa** (lanbide-talde guztientzat).

Faktore ebaluagarri horiek hainbat azpifaktoretan artikulatzen dira, eta azpifaktore horiek, aldi berean, hainbat itemetan. Bestalde, faktoreak hiru bloke handitan biltzen dira.

A blokeak faktore hauek biltzen ditu:

- jarduera asistentziala (A1 eta B1), jarduera eta lanean aritzea (A2, B2, C eta D) edo jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala (E lanbide-taldeetan); eta
- lanbide-jakintza (A1, A2, B1 eta B2) edo gaitasuna eta lanbide-jakintza (C eta D).

B blokeak faktore hauek biltzen ditu:

- prestakuntza;
- irakaskuntza eta jakintzaren hedapena (eta C, D eta E taldeetarako berrikuntza), eta
- ikerikuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk (A1, A2, B1, B2).

Azkenik, **C blokea** faktore hau da:

- erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa.

2. CURRICULUM VITAE APLIKAZIOKO CURRICULUM- MEREZIMENDUAK

Honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten curriculum-merezimenduak hartzen dira kontuan:

- (1) aplikazioan "**Baliozkotuta**" egoeran dauden merezimenduak dira;
- (2) aplikatu beharreko denbora-tartean sortu diren merezimenduak dira, hau da, aurreko sei edo zazpi urteetan (lanbide-garapeneko I. maila lortu nahi dutenentzat izan ezik; pertsona horientzat denbora osoa hartzen da), eta 2025eko abenduaren 31ra artekoak, 2025eko deialdian onartu izan direnentzat; eta 2022ko abenduaren 31ra artekoak, 2022ko deialdian onartu izan direnentzat; eta 2023ko abenduaren 31ra artekoak, 2023ko deialdian onartu izan direnentzat, eta 2024ko abenduaren 31ra artekoak, 2024ko deialdian onartu izan direnentzat.
- (3) merezimendu horiek berariaz identifikatuta daude 2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan, zehazki, B blokean ebaluagarritzat jotakoak, eta, Erakundearekiko lankidetzaz azpifaktoreari dagokionez, C blokean ebaluagarritzat jotakoak.

B blokeko **Prestakuntza** faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimenduak honako hauek dira:

- Titulazio Akademikoa.
- Graduondoko titulazioa
- Etengabeko prestakuntzako jardueretara joatea.
- Ezagutza zabaltzeko jardueretan parte hartzea.
- IT Txartelak.

B blokeari dagozkion **irakaskuntza eta jakintzaren hedapena** faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimenduak honako hauek dira:

- Maila akademikoetan emandako irakaskuntza.
- Irakaskuntza Osasun Zientzien espezialitateetan.
- Irakaskuntza graduondoko prestakuntzan.
- Etengabeko prestakuntzan emandako irakaskuntza:
- Bilera zientifikoetan eta dibulgazio-bileretan parte hartzea eta haiek antolatzea
- Artikuluak, liburuak, liburu-kapituluak, aldizkariak eta liburuak argitaratzea.

B blokeko **Ikerkuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk** faktorearen ebaluazioan lekua duten curriculum-merezimenduak *Curriculum Vitae* aplikazioko Ikerkuntza/Berrikuntza, *Taldeetan parte hartzea* eta *Beste merezimendu batzuk* ataletan daude kokatuta. Hona hemen curriculumeko merezimendu horiek:

- Ikerkuntzako eta berrikuntzako proiektuak
- Saiakuntza klinikoak eta frogantzako saiakuntzak.

- Doktore-tesien zuzendaritza eta ebaluazioa.
- Ikerkuntza-proiektuen ebaluazioa.
- Sariak eta goraipamenak ikerkuntzari.
- Jabetza intelektuala eta industrial.
- Ikerkuntzako egonaldiak.
- Ikerkuntzako plataformak eta sareak.
- Lizentziako tesina.
- Batzorde, epaimahai eta Osakidetzatik kanpoko beste organo batzuetan parte hartzea.
- Bestelako jarduera/esku-hartze profesionalak.

C blokeari dagokion **Erakundearekiko lankidetz**a faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimendu guztiak *Curriculum Vitae* aplikazioko Taldeetan parte-hartzea atalean daude. Hona hemen curriculumeko merezimendu horiek:

- Osakidetzako batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak.
- Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako batzorde, epaimahai eta bestelako organo batzuk.
- Osakidetzako lan-taldeak.

3. NOLA EGIN AUTOEBALUAZIOA

Hurrengo irudian, C eta D lanbide-taldeetarako ebaluazio-eredua erakusten da.

LANBIDE GARAPENeko EREDUA. C eta D Taldea				
BLOKE	FAKTORE	AZPILKAKTORE	ITEM	Ebaluazioa
A BLOKE	JARDUERA ETA LANEAN ARITZEA		Jarduera eta emaitzeko ekarpena	Lanbidearen ekarpen-fitxak
			Arazoak konpontzea	
	GAITASUNA ETA LANBIDE-JAKINTZA		Hurrenkera eta baliabideen erabilera	
			Lanbidean eguneratu eta hobetzea	
B BLOKE	PRESTAKUNTZA			Curriculum-merezimenduak
	IRAKASKUNTZA ETA EZAGUTZAREN ZABALKUNDEA			
C BLOKE	ERAKUNDEAREKIKO INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA FAKTORE	Talde-lana	Talde-lana	Lanbidearen ekarpen-fitxak
		Egokitzeko gaitasuna	Egokitzeko gaitasuna	
		Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa	Organo, batzorde eta taldearen parte hartzea	Curriculum-merezimenduak

Aplikazio informatikoaren *Ebaluazioa* fitxara sartzean, eta deialdi honetako Lanbide Garapeneko ereduaren arabera, hiru fitxa agertuko dira A, B eta C blokeekin.

A blokea, ebaluazio-faktoreekin eta -azpifaktoreekin.

Osakidetza | Lanbide-garapena

Masorati Wahnwitz, Johnny
16274230M

Autoebaluazioa

Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

Jarduera eta Lanean Aritzea

- Lanbidean eguneratu
- Araoak konpontzea
- Hurrenkeria eta baliabideen erabilera

Gaitasun Profesionala

- Lanbidean eguneratu eta hobetzea
- Erabiltzailearekiko harremana eta gogobetetzea

B blokea, curriculum-merezimenduak Curriculum vitae aplikazio informatikoan egin behar direla adierazita.

Osakidetza | Lanbide-garapena

Masorati Wahnwitz, Johnny
16274230M

Ebaluazioa

Deialdia: 1184/2023 - LANBIDE GARAPENEN DEIALDI ARRUNTA

Egoerari buruzko datuak Emandako zerbitzuak Eskaerak Izena ematea **Ebaluazioa**

Profesionala [Redacted]

Deialdia 1184/2023 - CONVOCATORIA ORDINARIA

Lor Daltekeen LG Malla 1 Lanbide Taldea D2 Especialitatea

Autoebaluazioa

Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea **B Blokea** C Blokea

B blokeko curriculumaren merezimenduak (Prestakuntza, Irakaskuntza eta ezagutzaren zabalkundea eta Ikerkuntza eta berrikuntza) Curriculum Vitae aplikazio informatikoan alegatu behar dira.

Eta C blokea, ebaluazio-faktoreekin eta -azpifaktoreekin, eta, kasuan kasu, batzorde, epaimahai eta lantaldeetan parte hartzearekin lotutako faktoreekin, curriculum vitaera igorrita.

Osakidetza | Lanbide-garapena

Masorati Wahnwitz, Johnny
16274230M

Ebaluazioa

Deialdia: 1184/2023 - LANBIDE GARAPENEN DEIALDI ARRUNTA

Egoerari buruzko datuak Emandako zerbitzuak Eskaerak Izena ematea **Ebaluazioa**

Profesionala RUANO CHIPANA, GERMAN AUGUSTO

Deialdia 1184/2023 - CONVOCATORIA ORDINARIA

Lor Daltekeen LG Malla 1 Lanbide Taldea D2 Especialitatea

Autoebaluazioa

Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea **C Blokea**

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

- Taldea-lana
- Egokitzeko gaitasuna
- Erakundearekiko lankidetzeta

JARDUERA ETA LANEAN ARITZEA FAKTOREARI EGINDAKO EKARPENAK

Jarduera eta lanean aritzea faktorea baloratzeko, kontuan hartzen dira profesionalen **unitate** edo zerbitzuaren **emaitzak eta helburuak**, eta zer ekarpen egiten duen emaitza horiek lortzeko; azken finean, zer ekarpen egiten duen zerbitzuak ematen dituen erakundearen helburuak lortzeko.

Era berean, profesionalak **arazoak konpontzeko** duen gaitasuna jasotzen du, bai eta haren **eraginkortasuna** ere, dituen **baliabideen** ordenari eta **erabilerari** dagokienez.

Jarduera eta lanean aritzea faktorea 3 itemetan banatzen da:

1. ITEMA: LANBIDEAN EGUNERATU
2. ITEMA: ARAZOAK KONPONTZEA
3. ITEMA: HURRENKERA ETA BALIABIDEEN ERABILERA

1. ITEMA: LANBIDEAN EGUNERATU

Item hau ebaluatzeko, oro har, **alderdi** hauek hartuko dira kontuan:

- **Egindako jardueraren** bolumena eta kantitatea, lan-erritmoa. **Planak**, jarraibideak eta **epeak** betetzea.
- Egindako jardueraren **kalitatea** eta akatsik eza.
- Arau, protokolo eta prozeduren jarraipena. Puntualtasuna eta doitasuna ordutegiak eta lanaldiak betetzean.

Osakidetza | Lanbide-garapena | AC Masorati Wahrwitz, Johnny 16274230M | ES | E

Jarduera eta Lanean Aritzea

Lanbidean eguneratu

Baloratu zenbateraino lagundu diezun zure atalak/taldeak/unitateak lortutako emaitzei

Itema	Erantsi
Atalean/Unitatean garatutako proiektuei laguntzea	Izena Tm Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa
Atalak/Unitateak esku hartzen duen prozesuetan egindako ekarpena	Izena Tm Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa
Atalak/Unitateak lortutako kalitateari buruzko emaitzei egindako ekarpena	Izena Tm Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa


Profesionalak bere jardueraren autoebaluazioan egokien jotzen dituen adierazleak aukeratuko ditu. Horretarako, Item eremuan klik eginez, adierazle bat hautatuko duzu lerro bakoitzean, ekarpen-maila aukeratu. Profesionalak egokitzen jotzen dituen informazioa/datuak/argudioak eman ahal izango ditu. Pertsonak **ekarpen-maila** "handia" hautatzen badu, ebidentziak eransteko eskatuko dio aplikazioak.

2. ITEMA: ARAZOAK KONPONTZEA

Profesionalak **egin beharreko jarduerak ordenatzeko, antolatzeko eta programatzeko** duen gaitasuna baloratzea, bai eta jardueran gertatzen diren gorabeherak eta ezustekoak konpontzeko **autonomia- eta eraginkortasun-maila** ere.

Honako hauei buruzko jokabideak jasotzen ditu:

- Ataza gauzatzeko **ekimena eta autonomia** izatea; behar diren jarraibide motak.
- Jardueraren **gorabeherak konpontzea**; konpontzen diren gorabehera motak. Arazoei eta gorabeherari **aurea hartzea**, halakorik ager ez dadin.
- **Ordena** atazak egitean, jardueraren autoantolaketa, unitateko jarduerak antolatzeko eta **gainbegiratzeko** atazak egitea.




3. ITEMA: HURRENKERA ETA BALIABIDEEN ERABILERA

Profesionalak bere jarduerarako beharrezkoak diren **materialak eta baliabideak ordenatu, erabili eta material eta baliabide horien erabilera egokia mantentzeko** duen gaitasuna baloratzea.

Honako hauei buruzko jokabideak jasotzen ditu:

- Jardueran erabiltzen diren **materialak**, lehengaiak eta baliabideak **behar bezala aprobetxatzea**. Jardueran erabilitako tresnak, makinak, ekipoak edo instalazioak behar bezala erabiltzea. **Baliabideak ahalik eta ondoen** aprobetxatzeko eta optimizatzeko interesa eta orientazioa izatea.
- Materialak, lehengaiak eta baliabideak **ordenatzeko eta behar bezala kontserbatzeko** jarduerak. Unitateko tresnak, makinak, ekipoak edo instalazioak kontserbatzeko eta mantentzeko jarduerak.
- Jardueran erabilitako **informazioak, erregistroak** eta dokumentazioak ordenatzeko, **eguneratzeko** eta behar bezala **artxibatzeko** jarduerak.



GAITASUNA ETA LANBIDE-JAKINTZA FAKTOREARI EGINDAKO EKARPENAK

Gaitasuna eta lanbide-jakintza faktorea da profesionalak bere jarduerari jakinduria gisa gehitzen dizkion **ezagutzen, gaitasunen eta jarrerren** multzoa, barnean hartuta egiten dituen jardueren **jakintza** bera, baita **erabiltzailearekin duen harremanaren kalitatea** eta sortutako gogobetetasuna ere.

Faktore hori bi item hauen bidez ebaluatzen da:

1. ITEMA: LANBIDEAREKIN LOTUTAKO EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA
2. ITEMA: ERABILTZAILEEKIKO HARREMANA ETA GOGOBESETASUNA

1.ITEMA. LANBIDEAREKIN LOTUTAKO EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA

Hona hemen definizio batzuk:

- Profesionalak aplikatzen dituen **ezagutzen, tekniken**, prozeduren eta abarren **konplexutasuna eta berritasuna**. Alderdi horiek aplikatzeko **autonomia**-maila, eta erakundeari ematen dion espezializazio- eta/edo **balio-aniztasun**-maila.
- Profesionalak unitateko **hobekuntza-jarduerari, protokoloari**, teknikei edo prozesuei egindako ekarpena.
- **Autoprestakuntza- eta prestakuntza**-jarduerak egitea. Sustapen eta hobekuntza profesionalerako aukera ematen duten jarduerari ekiteko interesa.

Osakidetza | Lanbide-garapena | AC Masorati Wahnwitz, Johnny 16274230M | ES

A Blokea | B Blokea | C Blokea

Jarduera eta Lanean Aritzea

Gaitasun Profesionala

Lanbidean eguneratu eta hobetzea

Identifikatu zure ustez konplexuenak diren jarduerak. Azaldu konplexutasun horren arrazoiak, eta azaldu zer autonomia- edo erantzukizun-maila duten.

Jarduerak	% dedikazioa 0	Autonomia/erantzukizun maila	Konplexutasun-alderdiak
Jarduerak	% dedikazioa 0	Autonomia/erantzukizun maila	Konplexutasun-alderdiak
Jarduerak	% dedikazioa 0	Autonomia/erantzukizun maila	Konplexutasun-alderdiak

2. ITEMA. ERABILTZAILEEKIKO HARREMANA ETA GOGOBESETASUNA

Profesionalak barneko eta/edo kanpoko erabiltzaileentzako orientazioa baloratzen du, hau da, haien **eskaerak ulertzeko** eta haien **erantzuteko** gaitasuna, erabiltzailearekin **harreman** eta **komunikazio** zuzena izateko gaitasuna eta sortutako **gogobetetasun-maila**.

Erabiltzailetzat jotzen dira **pazienteak** (eta/edo senideak) eta **barneko erabiltzaileak** (unitateak, zerbitzuak edo egindako jardura eskatzen duten profesionalak).

Honako jokabide hauek hartzen ditu barnean:

- Erabiltzailearekiko **jarrera**, hari emandako **tratua** eta informazioa.
- Erabiltzailearen beharrak ulertzea eta **haren eskaera** eta eskariei **erantzutea**.
- Erabiltzailearengan **sortutako gogobetetasun-maila**.
- Tratamendua eta **konfidentzialtasuna**, informazio sentikorraren aurrean.

Osakidetza | Lanbide-garapena | Maserati Wahnwitz, Johnny | 16274230M | ES | EU

Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea | B Blokea | C Blokea

Jardura eta Lanean Aritzea

Gaitasun Profesionala

Lanbidean eguneratu eta hobetzea

Erabiltzailearekiko harremana eta gogobetetzea

Hurrengo itemari dagokionez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifikatu itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema: Erabiltzailearekiko harremana eta gogobetetasuna

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi

Izena | Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

ERAKUNDEAREKIKO INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA FAKTOREARI EGINDAKO EKARPENAK

Erakundearekiko inplikazioaren eta konpromisoaren balorazioa da profesionalak erakundearen helburu eta proiektuetan **laguntzeko eta inplikatzeko** duen prestasuna.

Taldean lan egiteko gaitasuna, erakundearen proiektuetan lankidetzan aritzea eta hobetzeko eta aldaketara egokitzeke jarrera hartzen ditu kontuan.

Inplikazioa eta konpromisoa faktorea hiru azpifaktore hauetatik abiatuta ebaluatzen da:

- ❖ TALDE-LANA
- ❖ EGOKITZEKO GAITASUNA
- ❖ ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZA

Osakidetza | Lanbide-garapena | Masorati Wahrwitz, Johnny | ES | EU

Egoerari buruzko datuak | Emandako zerbitzuak | Eskaerak | Izena ematea | **Ebaluazioa**

Profesionala: [REDACTED]

Deialdia: 1184/2023 - CONVOCATORIA ORDINARIA

Lor Dattekeen LG Malla: 1 | Lanbide Taldea: D2 | Espezialitatea:

Autoebaluazioa

Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduetan eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea | B Blokea | **C Blokea**

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

- Talde-lana
- Egokitzeko gaitasuna
- Erakundearekiko lankidetzatza

TALDE-LANA

Talde-lana balioesten du, hau da, **unitateko taldearekin** eta erakunde **beste unitate batzuetako** pertsonekin **lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko gaitasuna**, haiekin harremanak izateko.

- Beste unitate batzuetako kide eta profesionalekin **informazioa trukitzea**, komunikatzea eta **koordinatzea**.
- Lankideekin eta beste profesional batzuekin **elkarlanean aritzea** eta haien **eskariei eta eskaerei** erantzutea.
- Unitatearen edo erakunde osoaren **jardueretan edo proiektuetan** parte hartzea, **inplikatzea** eta laguntzea. Beste profesional batzuk **prestatzeko eta trebatzeko** jardueretan laguntzea.

Osakidetza | Lanbide-garapena | Masorati Wahrwitz, Johnny | ES | EU

A Blokea | B Blokea | **C Blokea**

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

Talde-lana

Hurrengo itemei dagokienez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure mererezimenduetan eta ekarpenak:

Itema: Talde-lana

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena | Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

EGOKITZEKO GAITASUNA

Profesionalak lan egiteko metodoen eta moduen aldaketetara **egokitzeko duen gaitasuna** baloratzen du, baita antolaketa-beharren aurrean duen **prestatasuna** ere. Era berean, hobekuntzara bideratutako **ekimen, programa eta jardueretan lankidetzatza eta parte-hartze** aktiboa aintzat hartzen ditu.

Item honen balorazioak honelako **jokabideak** hartzen ditu kontuan:

- **Aldaketetara egokitzea** eta lana egiteko **metodo** eta modu berriak **bereganatzea**. **Antolamenduzko beharrek** eragindako aldaketen aurrean **prestasuna** izatea.
- **Hobekuntza-arloak** detektatzea eta **iradokizunak egitea**, **lana hobetzen** duten **aldaketak** sartzea, eta **hobekuntza-jardueri** eta **-proiektuei laguntzea**.

Osakidetza Lanbide-garapena Masorati Wahnwitz, Johnny 16274230M ES | EU

A Blokea B Blokea C Blokea

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

Talde-lana

Egokitzeko gaitasuna

Egokitzeko gaitasuna

Itema Egokitzeko gaitasuna

Ekarpen-maila Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZA

Osakidetza Lanbide-garapena Masorati Wahnwitz, Johnny 16274230M ES | EU

Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkitzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

Talde-lana

Egokitzeko gaitasuna

Erakundearekiko lankidetza

Batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak

Zerbitzu-erakundeetako batzardeak, epaimahaiak eta bestelako organoak

Osakidetzako lan-taldeak

Azpifaktore hori batzordeetan, epaimahaietan, lantaldeetan eta abarretan parte hartzean egituratzen da, eta Curriculum Vitae aplikazioaren eta item honen bidez egiaztatuko dira:

1.ITEMA. ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZA

Itemak profesionalak erakundeak sustatutako ekimen, programa eta jardueretan izandako lankidetzaren eta parte-hartze aktiboa baloratzen ditu, baita beste unitate edo erakunde batzuekiko lankidetzaren eta koordinazioaren ere.

Item honen balorazioak honelako jokabideak hartzen ditu kontuan:

- Erakundeak sustatutako jarduera eta proiektuetan parte hartzea.
- Erakundearen helburu eta proiektuetan inplikatzeta.
- Batzordeen, lantaldeen eta abarren zuzendaritza- edo koordinazio-jardueretako esperientziak. Beste unitate edo erakunde batzuekin koordinatzeko eta lankidetzeta-arloak bilatzeko jarduerak.